



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko maiatzaren 6an

31 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua (3. or.).
- Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (11. or.).
- Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (11. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko Plan bat igor dezan, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan. «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak baztertua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Senatuaren eraberritzea aztertzen ari den Ponentziari adierazten zaio zein den Nafarroako Parlamentuaren irizpidea aldaketa honen aurrean. Osoko Bilkurak baztertua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzeari buruz neurriak har ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak baztertua (16. or.).

—Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (17. or.).

—Laneko Segurtasun eta Osasunaren egunari buruzko Adierazpena. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (17. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Trafikoari buruzko eskumenak berreskuratzeari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egin (18. or.).

—Zikloturismorako bide handietako Europako sare bat sortzeko Eurovelo proiektuak Nafarroatik izango duen ibilbideari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (19. or.).

—Soro landuak uzteko politiken garapenari eta egungo egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (20. or.).

—Abiadura Handiko Trena Nafarroatik iragateari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (21. or.).

—Ardi-aziendari bizkarroiak kentzeko metodoei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egin (21. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako Testu Arau Emaileak:**

—Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1998-2008) (23. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko apirilaren 20an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko maiatzaren 25eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua

### ZIOEN ADIERAZPENA

Nafarroako gobernamentuaren jardunak, historian zehar, erakunde aholku-emaileen laguntza izan du. Horien artean aipagarriena Nafarroako

Errege Kontseilu Gorena izan da, izan duen iraupena eta garrantziagatik. Gobernu lanetan aholkuak ematea zegokion eta errege botereak “sobrecarta” izeneko eskubidearen bidez emandako xedapenen legezkotasuna eta forutasuna begiratzea.

Foru Lege honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Kontseilua eratzen du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.a) eta e) artikuluan bildutako foru araubidearen indarrez bere foru erakundeak eta Foru Komunitateko Administrazioa antolatze-ko duen erabateko eskumenaz baliatuz. Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren organo aholku-emaile gorenaren izan da, aipatu Lege Organikoaren 20.2 artikuluari jarraikiz.

Izaera tekniko-juridikoko organo aholku-emaile goren horren eraketak jardun administratiboa hobetzea du xede, bi alderditatik: administrazioaren ikuspegitik, hartzen diren erabakien legezkotasuna bermatuko baita, eta hiritarren ikuspegitik, beren eskubideak babesteko beste baliabide eraginkorrago bat izanen baitute. Denborarekin, organo honen doktrinari esker, arau juridikoen interpretazio egokiagoak eginen dira, Konstituzioarekin eta LORAFNarekin bat etorritik.

Indarra duen arauteriak eta konstituzioaren jurisprudentziak, zeinen indarrez autonomi erkidegoek eta, hortaz, Nafarroako Foru Komunitateak beren organo aholku-emaile gorenak eratzeko eskubidea baitute, Nafarroak arlo horretan dituen eskubide historikoak babesten dituzte.

Nafarroako Kontseiluaren eraketa, beraz, justifikatuta dago erabat, izan ere foru erakundeen eskema hobetuko du, Estatuko Kontseiluaren partehartzea beharrezkoa izanen ez delako, eta Foru Komunitatearen autogobernu maila goratuko.

Nafarroako Kontseilua organo aholku-emaile gisa eratuko da, organo erabakitzaileetatik aparte. Autonomia organiko eta funtzionala izanen du eta eskumen esparru berariazkoa emanen zaio. Kide-

en araubideak beren kualifikazio tekniko zorrotza bermatuko du eta, halaber, horien neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

Foru Lege honek sei kapitulu ditu, Xedapen Orokorrak, Nafarroako Kontseiluaren Eraketa, Eskumenak, Funtzionamendu arauak, Prozedura eta Baliabide Osagarriak izenekoak, eta horien ondotik bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta lau azken xedapen erantsi dira.

Foru Lege honen arabera, Kontseilua egitura errazeko organoa izanen da, Idazkaritzaren inguruan eratua. Izan ere, antolamendu egitura konplexuagoak baztertu dira, Nafarroako Foru Komunitateak erakundeen aldetik dituen beharrak ikusita, neurrigabekoak baitira.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Kontseilua eratu da, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren organo aholku-emaile gorena izateko.

2. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratu du.

Txostenak eta irizpideak emateko orduan, ez da sartuko egokitasuna edo komenigarritasuna aztertzeraz.

3. Kontseiluaren egoitza Iruñean izanen da.

### 2. artikulua. Autonomia.

1. Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

2. Nafarroako Kontseiluaren irizpena hartzen duten gaiei buruz, Gobernuak ezin izanen dio txostenik eskatu Administrazioaren beste ezein organori.

### 3. artikulua. Irizpenen izaera.

1. Nafarroako Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da Foru Lege honetan edo beste batzuetan ezartzen diren kasuetan, eta gainerakoetan aukerakoa izanen da.

Irizpenak ez dira lotesleak izanen, lege bidez horrelakoak izatea ezartzen den kasuetan izan ezik.

2. Kontseiluaren irizpen ez-loteslea nahitaez jaso behar duten gaiei buruzko xedapen eta ebaz-

penetan adierazi beharko da, haren irizpenari jarraikiz egin den ala ez; lehenbiziko kasuan "Nafarroako Kontseiluarekin bat etorriz" esamoldea erabiliko dute eta, bigarreanean, "Nafarroako Kontseiluaren iritzia entzunda".

## II. KAPITULUA Eraketa

### 4. artikulua. Kideak.

1. Nafarroako Kontseilua zazpi kidek osatuko dute. Horietako bat kontseiluburua izanen da eta beste bat idazkaria.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu, Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako izaera politikoa duten izen eta esperientzia handiko legelarien artean.

### 5. artikulua. Kontseiluburua.

Kontseiluburua Nafarroako Gobernuak izendatuko du kideen artean, Foru Dekretu bidez.

Kontseiluburu kargua bete gabe eta hura kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkiderik zaharrena arituko da, idazkaria izan ezik.

### 6. artikulua. Idazkaria.

1. Kontseiluko idazkaria Nafarroako Gobernuak izendatuko du Foru Dekretu bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen artean, hain zuzen, oinarrizko lanpostuan sartzeko zuzenbidean lizentziatua izatea espres eskatu zaienen artean.

2. Kontseiluko idazkari izendatzen den funtzionarioa organo horri atxikiko zaio, zerbitzu berezietako administrazio egoeran, erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasoko ditu eta erabateko dedikazioan ariko da, 13.2 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

3. Idazkari kargua bete gabe eta hura kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkiderik gazteena arituko da, kontseiluburua izan ezik.

### 7. artikulua. Jabetza hartzea.

Kontseiluko kideek karguaren jabetza hartuko dute izendatu ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan, Nafarroako lehendakariaren aurrean egiten den ekitaldian eta bertan zin egin edo hitz eman beharko dute Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeari eta Nafarroako Erakundeei men egiten dietela.

9.1. artikuluko a), c) eta h) letretan adierazi kasuetan, kideek beren eginkizunak betetzen

segituko dute, harik eta beste baten izendapena eta kargu hartzea gertatu arte.

#### **8. artikulua.** Kargualdia.

Nafarroako Kontseiluko kideak sei urterako izendatuko dira eta, ondoren, beste horrenbeste urtetarako kargualdiak betetzeko izendatu ahalko dira.

Hiru urtetik behin Kontseiluko kideen erdiak aldatuko dira.

#### **9. artikulua.** Kargu uztea.

Kontseiluko kideek honako egoera hauetan utziko dute kargua:

- a) Uko egitea.
- b) Kidea hiltzea.
- c) Kargualdia amaitzea.
- d) Ustekabeko bateraezintasuna.
- e) Eginkizunetan akats larria egitea.
- f) Delituagatiko zigorra izatea, epai irmoaren ondoriozkoa.
- g) Ezintasuna, epaileen erabaki irmoaren bidez deklaratu.
- h) Nafarraren izaera politikoa galtzea.

2. Kargu uztea Gobernuaren Foru Dekretuaren bidez aginduko da. Aurreko zenbakiko d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan, interesatuari entzunaldia eskainiko zaio eta Kontseiluari txostena eskatuko.

3. Kargualdia amaitu aurretik sortzen diren postu hutsak kasuan kasuko kidearen kargualdia amaitu arte beteko dira, 4. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

#### **10. artikulua.** Funtziogabetzea.

Nafarroako Gobernuak, Kontseiluaren iritzia entzun ondoren, kontseilukideak funtzio gabetu ahalko ditu, 9.1. artikuluko d) et e) letretan kargua uzteko egoerei buruzko ebazpena emateko behar den ezinbesteko denborarako eta, halaber, prozedura penala gertatzen den kasuetan.

#### **11. artikulua.** Beharkizunak.

Nafarroako Kontseiluko kideak beharturik daude jorratu beharreko gaiak erabakitzeko bilkuretara ohiz joatera, eta deitzen zaien gainerakoe-tara ere, eskatzen zaizkien azterketa, ponentzia eta lanak, beren karguari dagozkionak, egitera eta jarduketa eta erabakiak isilpean gordetzera.

#### **12. artikulua.** Bateraezintasunak.

Indarra duten beste arauak aplikatuz dagoz-kien bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontsei-luko kide izatea kargu hauekin bateraezina izanen da.

a) Nafarroako Gobernuako lehendakaria edo kontseilaria.

b) Europako Batasuneko, Estatuko edo auto-nomi erkidego zein toki entitate bateko erakunde-etako kargu hautesgarria izatea.

c) Partidu politiko, sindikatu edo enpresarioen elkarte bateko zuzendaritza taldekoa izatea.

d) Fiskal edo epaileen kidegoko iharduneko kidea.

e) Nafarroako Administrazio Publikoekin harre-mana duten enpresetako zuzendaritzako kargua.

#### **13. artikulua.** Ordainsariak.

1. Idazkaria izan ezik, kontseilukideek Kontsei-luko lan bilkuretara joategatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sari eta ordainsariak jasozteko eskubidea izanen dute.

2. Gainera, Kontseiluko kide guztiek txosten eta irizpenen egile izateagatik erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute.

3. Aurreko bi zenbakietan ezartzen diren ordainsariak lanetan parte hartzen duten adituek ere jasoko dituzte, 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

### **III. KAPITULUA** **Eskumena**

#### **14. artikulua.** Nahitaezko irizpena.

1. Kontseiluari aholkua eskatuko zaio, nahitaez, honako kasuetarako:

a) Legegintzako Foru Dekretuen Proiektuak.

b) Legeak betearazteko asmoz, izaera orokorrez ematen diren Erregelamendu eta xedapenen proiektuak eta haien aldaketak. Letra honetan xedatutakotik salbuetsita utziko dira Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz aplikatu beharreko xedapenak, Estatuko Kontseiluak denondako araudiari buruzko txostena eman duen kasuetan.

c) Nafarroako Kontseiluaren antolaketa, esku-menak edo funtzionamendua ukitzen dituzten Foru Legeen aurreproiektuak eta administrazio xedapenen proiektuak.

d) Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia alorreko eskubideei buruzko transakzio

judizial zein esparru judizialek kanpokoak, eta horien inguruko aferen arbitraje gaiak, kasu bietan auzitan dagoena berrogeita hamar milioi pezetatik gorakoa denean. Dena den, salbuetsita geldituko dira eskubide horiek ukitzen dituzten erabaki edo hitzarmenak, lehiaketa prozeduren ondorioz sortu direnean, hain zuzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 15. artikulua 2. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen direnak.

e) Berraztertzeko administrazio errekursoak.

f) Legearen arabera, erakunde aholku-emaile baten nahitaezko irizpena behar duten gaien buruz Administrazioak izapidatzen dituen espedienteak, besteak beste, honako gaien buruzkoak:

-Hogei milioi pezetatik gorako kalte-galeren ordainen erreklamazioak.

-Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.

-Hirigintza planeamenduaren baliabideen aldaketa, berdegune edo gunen irekien zonifikazioa aldatu edo horien erabilera ukitzen denean.

-Udalerrak aldatzeko espedienteak.

g) Administrazio kontzesio eta kontratuak interpretatzea, baliogabetzea eta ebatzea, kontratista aurka agertzen denean; orobat, kontzesio eta kontratuak aldatzea, horien zenbatekoa, dela bakarka dela osorik hartuta, kontratuaren adjudikazio prezioaren % 20tik gorakoa denean eta kontratua 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa denean.

h) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluen nahitaezko irizpena behar duten gainerako gaiak.

2. Nafarroako toki entitateek nahitaezko irizpena eskatu beharko dute legeek Estatuko Kontseiluen edo autonomi erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpena eskatzea agintzen duten kasuetan.

#### **15. artikulua.** Beste irizpen batzuk.

Nafarroako Kontseiluari aurreko artikuluan zehaztu ez diren beste gai batzuei buruzko irizpena ere eskatu ahalko zaio, gaiaren garrantzi edo eragin berezia dela eta, beharrezkoa denean.

#### **16. artikulua.** Abstentzioa.

Kontseilukideek zuzeneko interes objektibo zein subjektiboa duten gaietan parte hartzeari uko egin beharko diote, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat etorritik.

#### **17. artikulua.** Memoria.

Kontseiluak urtero memoria prestatu eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketa juridiko-administratiboa hobetzeko egoki juzkatzen dituen iradokizunak aurkeztuko ditu.

### **IV. KAPITULUA** **Funtzionamendua**

#### **18. artikulua.** Irizpena eskatzea.

1. Nahitaezko txostena behar duten gaien inguruko Kontseiluaren irizpena Nafarroako Gobernuko lehendakariak, Nafarroako Gobernuak edo kasuan kasuko gaiaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren kontseilariak eskatu ahalko dute.

2. Gainerako kasuetan, irizpena Nafarroako Gobernuak edo lehendakariak berak eskatu ahalko dute, beste inork ez.

3. Nafarroako toki entitateetako lehendakariari edo beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoek dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaezkoa den kasuetan. Eskaera hori Nafarroako Gobernuko lehendakariaren bitartez egiten da.

#### **19. artikulua.** Erabakiak hartzea.

1. Kontseiluaren irizpen eta erabakiak baliozkoak izateko, kontseiluburuak eta idazkariak, edo legez haien ordezkariak direnek, bilkuran egon behar dute, eta horiekin batera, gehiengo absolutua osatzeko behar diren hainbat kontseilukidek, gutxienez.

2. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoaz.

Berdinketa izanez gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa erabakigarria izanen da.

3. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahalko dute beren boto partikularra, irizpenari erantsiko zaiona.

#### **20. artikulua.** Kontseiluburuaren eginkizunak.

Kontseilukide den aldetik dagozkion eginkizunak gain, kontseiluburuak honako hauek ere izanen ditu:

a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkari izatea, Foru Komunitateko organo eta erakundeekiko harremanetan.

b) Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea, bertan buru izatea eta bilkurak zuzentzea.

c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, txostena egin dezaten.

d) Kontseilutik kanpoko adituak izendatu eta txostenak egin ditzaten agintzea, beharrezkoa ikusten denean.

e) Kontseiluaren gastuen espedienteak ikusoneste, idazkariak izapidatu baino lehen.

f) Erregelamendu organikoan finkatuko diren gainerako eginkizunak.

**21. artikulua.** Idazkariaren eginkizunak.

Kontseilukide den aldetik dagozkion eginkizunez gain, idazkariak honako hauek ere izanen ditu:

a) Kontseiluko langileen buru izatea.

b) Kontseiluaren bilkuretarako behar den dokumentazioa aztertu eta prestatzea.

c) Kontseiluaren bilkuretako akta egitea.

d) Kontseiluaren ziurtapenak eta komunikazioak egitea.

e) Erregelamendu organikoan finkatuko diren gainerako eginkizunak.

## V. KAPITULUA Prozedura

**22. artikulua.** Epea.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun naturaleko epea izanen du eskatzen zaizkion irizpenak emateko.

Organo eskatzaileak espedientearen premia justifikatzen duen kasuetan, epea hamabost egun naturalera arte jaitsi ahalko da.

Salbuespeneko kasuetan eta kontseiluburuak eskatuta, ohiko epea luzatu ahalko da, hogeita hamar egun natural, gehienez.

**23. artikulua.** Dokumentazioa.

Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.

Kontseiluak uste badu espedientea osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez, eskatu ahalko du behar den dokumentazio osagarria ekar dezaten. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten egingen da, behin baino ez, beti ere.

**24. artikulua.** Adituen partehartzea.

Kontseiluak aztergai jartzen zaizkion aferetan gaitasun tekniko nabarmena duten erakunde, enti-

tate edo adituen partehartzea eskatu ahalko du, txostena egin dezaten. Kasu horietan, Kontseiluaren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien eta txosten hura irizpenarekin batera aurkeztuko da.

Orobat, aztergai jartzen den espedientearen legezko eta zuzeneko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoei entzunaldia ematea erabaki dezake.

## VI. KAPITULUA Baliabide osagarriak

**25. artikulua.** Baliabideak.

1. Nafarroako Gobernuak Kontseiluaren esku jarriko ditu bere helburuak betetzeko behar dituen giza eta gauzazko baliabideak.

2. Giza baliabideei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lanpostuetatik eskainiko dira.

3. Behar diren baliabide materialak eskuratze-ko, Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontuan horretarako behar diren kontusailak finkatuko dira, programa berariazko bat osatuko baitute.

**26. artikulua.** Atxikipena.

Administrazio eta ekonomi kudeaketaren ondorioetarako, Nafarroako Kontseiluaren plantila organikoa eta aurrekontu programa Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Barne Departamentuan sartuko dira.

### Xedapen gehigarriak

**Lehena.** Nafarroako Kontseilua eratu eta hila-beteko epearen barruan, Nafarroako Gobernuak haren funtzionamendurako Erregelamendua onetsiko du.

**Bigarrena.** 14.1. artikuluan adierazi kopuruak erregelamendu bidez eguneratu ahalko ditu Gobernuak, pezetatan, edo horien ordaine, eurotan, Nafarroako Kontseiluaren aurretiazko txostena ikusita.

### Xedapen iragankorrak

**Lehena.** Foru Lege honek indarra hartu aurretik, nahitaezko irizpena jasotzeko, Estatuko Kontseilura igorriak diren espedienteen izapidatzea hasitako biderei segituz egingen da.

**Bigarrena.** Legeen arabera nahitaezko irizpena Estatuko Kontseilutik hartu beharra izanik, Foru Lege honek indarra hartzen duenerako hasiak diren espedienteak Nafarroako Kontseiluari igorriko zaizkio.

**Azken xedapenak**

**Lehena.** Nafarroako Kontseilua Foru Lege hau aldarrikatu eta bi hilabeteko epearen barruan eratu beharko da.

**Bigarrena.** 8. artikuluan ezarritakoa betetzeko asmoz, Nafarroako Kontseiluko kideak hasiera batez izendatzeko foru dekretuetan zehaztuko da

zein hiru kidek, kontseiluburua eta idazkaria kenduta, izanen duten hiru urteko kargualdia.

**Hirugarrena.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betetzeko behar diren arauak eman ditzan.

**Laugarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamu-nean hartuko du indarra.

## **Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea**

*ZIOEN AZALPENA*

Azaroaren 5eko 40/1997 Legearen bidez, Naturguneak eta Basa Flora eta Fauna Zaintzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legeko zenbait artikulua aldatu ziren.

Eskudun Administrazioek ehizaldiak diferenteki tratatzen dituztela eta salbuespenak Lege horretako debekuak indargabetzeko erabiltzen direla ikusirik gertatu da aldaketa hori.

Gainera, espezie batzuk ugaltu eta zabaldu direla ohartu da. Horrek egin du Europako Bata-suneko estatuetan espezie haiendako ezarritako debekualdiak homogenoek izan ez izatea, ehiza denbora gehiagoz baimentzen delarik.

Egoera hori dela eta, komenigarria zen, ohiko zen tokietan eta erabat kontrolaturiko egoeretan, arrisku baldintzak eta denbora eta toki inguruabarrak kontuan harturik, baimen ahal zedila, modu

bereizgarrian, hegazti batzuk, gutxika, zuhurki harrapatu, eduki edo ustiatzea, espezieen iraupe-na bermatzeko behar diren mugak muga.

Basa Fauna eta haren Habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak, orain aldatu diren 4/1989ko zenbait xedapenek oinarrizko legeria osatzen dutela kontuan hartuz, antzeko aginduak bildu zituen.

Estatuko arauteriaren aldaketak, berriki egin denak, oinarrizko arauterien izaera duten xedapenak ukitzen ditu eta, hortaz, Foru Legea eduki berrietara egokitu behar da.

Hori horrela, bidezko da basa faunari buruzko jarduketan debeku orokorrak betetzeko salbuespenen artean beste bat jartzea, ehiza espezie batzuk, hegazti migratzaile zenbait, kasu, kumeak izaten edo habiak egiten dituzten lekuetara itzultzean harrapatzeko baimena ematea ahalbidetzeko.

Hori dena, guztiz kontrolaturiko egoeretan, metodo bereizgarriak ezarri eta ehiza espezie horien ale gutxi ukituz.

Gainera, izan litezkeen baimenek zehaztu egin beharko dute zer espezie harrapa daitezkeen eta horiek Nafarroan zer egoeratan dauden aleei dagokienez; baimentzen diren baliabide eta metodoak eta horiek erabiltzeko zioak; Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak zer kontrol sistema ezarriko dituen; jarduketaren bidez zer helburu lortu nahi diren; nolako arriskua eragin dakiokkeen basa faunari eta zenbat ale harrapa daitezkeen gehienez ere.

Horrela, foru arauteria Estatuko oinarrizko arauteria egokitzeko eginbeharra betetzeaz gain, bermatuko da onarturiko salbuespen berriek ez



dutela arriskuan jartzen basa faunen espezieen iraupena eta ez dituztela ukitzen horiek darabiltzaten eta beren ziklo biologikoetako edozein etapatan garatzeko behar dituzten habitatak.

**1. artikulua.** Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 9. artikuluko 1. idazatiari beste idazketa bat ematen zaio eta beste letra bat, e), gaineratzen. Honelaxe:

“1. Beste konponbide hoberik ez badago eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak alde aurreko baimena ematen badu, 8. artikuluko debekuak indarrrik gabe geratuko dira, honako inguruabarretako bat biltzen denean:

(...)

e) Erabat kontrolaturiko egoeretan eta ohiko metodo bereizgarrien bidez, pagausoa zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea ahalbidetzeko, espezieen iraupena bermatzeko behar diren mugak muga.”

**2. artikulua.** 9. artikuluari beste idazati bat, 3, gaineratzen zaio. Honelaxe:

“3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, berak erabakitzen dituen baimenak jakinaraziko dizkio Ingurugiro

Ministerioari, horrek, artikuluko 2. idazatian aurreikusirikoaren arabera, ondoren Europako Erkidegoetako Batzordeari jakinaraz diezaion.”

**3. artikulua.** 39. artikuluari beste idazati bat, 4, gaineratzen zaio. Honelaxe:

“4. Beste konponbide hoberik ez badago, 11. artikuluko 2. idazatikiko betebeharrak betez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak artikuluko 1. idazatian kumeak izaten dituzteneko lekuetara itzultzen ari diren katalogoz kanpoko hegazti migratzaileei buruz ezarritako debekua indarrrik gabe uzten ahal du, ohiko tokietan, erabat kontrolaturiko egoeretan eta modu bereizgarrian, ehiza espezieen ale batzuk, gutxika, zuhurki harrapatu, eduki edo edonola ere ustiatzea ahalbidetzeko, espezieen iraupena bermatzeko behar diren mugak muga.”

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizalean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Legea onetsi zuen: Foru Legea, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Foru Legea, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko**

1996ko azaroaren 28an Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen mozioan Nafarroako Gobernuak premiari zen Radio Televisión Españolako Zuzendaritzarekin hitz egiten has zedila. Elkarrizketa horien helburua lurraldeetan deskonexioak egiteko hitzarmena lortzea zen, Nafarroako Foru Komunitatearen berezko programazioak emanaldi aski izateko komunikabide publikoetan.

Nafarroako Gobernuaren eta Radio Televisión Española ente publikoaren arteko lankidetzarako akordio-markoan telebista kateetan ematen den lurraldeko programazioa hobetu eta zabaltzeko bideak bilatzeko konpromisoa bildu zen; hori helburu, Nafarroako Gobernuak TVEren Lurraldeko Zentroaren finantzazioan lagunduko du, horretarako izenpetuko den berariazko akordioaren proposamenean zehazten den moduan, beti ere Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gastu hori aurreikusi bada.

TVEren lurraldeko programazioari buruz Nafarroako Gobernuak eta Radio Televisión Española ente publikoak sinatu zuten Abiaturuko Akordioan finkatu zen programazio hori hasiko zela TVEren emanaldi arrunten deskonexioa eginda, asteko egun guztietan, Nafarroako Foru Komunitatearentzako programazio berariazkoa eman ahal izateko. Orobat, Nafarroako Gobernuak TVEren lurraldeko zentroaren finantzazioan lagunduko du, urtero 250 milioi pezeta emanaz. Urte natural batetik beherako aldiei dagokien ordainketa egin behar denean, diru-kopuru hori hainbanatuko da.

Horrenbestez, kontuan harturik emanaldiak 1998ko uztailaren 6an hasia aurreikusi dela, ekarpen hori gauzatzeko 125.000.000 pezetako kreditu berezia emanen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**1. artikulua.** 1. Radio Televisión Española ente publikoari 125.000.000 pezetako dirulaguntza ematea onetsi da, 1998. urtean TVEren Nafarroako Zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko.

2. Kreditu hori aurrekontuen 62220-4459-5211 kontusailaren Radio Televisión Española ente publikoarentzako ekarpena izeneko 25775-7 lerroaren kargura ordainduko da, 31000 Proiektua.

**2. artikulua.** Kreditu berezi horren finantzazioa egiten da Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa kontusailaren 35465-2 lerroaren dirusarreraren kargura.

### **Azken xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena

### OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 1998ko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentarietarako Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko martxoaren 17ko

19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena

### EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1998ko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentarietarako Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko martxoaren 17ko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozera mailean Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena ohizko ihardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.** Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Lehendakartiza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko maiatzaren 25eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietarako emendakinek aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan**

### *«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait zerga-aldaketa egin dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioaren Eleduna den Patxi Zabaleta Zabaleta, Ganbararen Arautegiaren 192. artikulua eta ondokoaren arabera, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko Iruzur Fiskalari buruzko, hurrengo mozioa aurkezten du:

Justifikazioa:

Nafarroako Lurralde Historikoan indarrean dagoen zerga sistemak dituen hutsuneak direla eta, benetako ekitatez ez dago errenta maila ezberdinek jasaten duten zerga zamari dagokionez; ekitate eza errenta jatorriaren arabera ematen da gehienbat, hau da, lan-errentak, jarduera profesionalak eta enpresa-jarduerak.

Honek guztiak, Erakunde Publikoek dituzten ekonomi baliabideei begira sortzen dituen kalteez gain, sektore jakin batzuk egiten duten iruzur fiskalari babesa eta onarpena ematen dio.

Gainera, indarrean dagoen zerga araudian oinarritzen den iruzur fiskala aitzakitza hartzen ari da neurri fiskal atzerakoiak justifikatzeko. Beraz,

galdera zera da: ea iruzur fiskalaren kontrako borroka gehiago dutenen ekarpenaren jeitsieraren bitartez gauzatu behar den ala, aitzitik, neurri eraginkorrek hartu behar diren iruzur fiskala eragozteko. Zalantzarik gabe, mozio honen xedea bigarren aukeran kokatzen da.

Guzti honengatik, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Parlamentuak premiazko aldaketak egin ditzala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko zergari buruzko araudiari dagokionez, eta horretarako proposatzen dugu ondorengo erabaki proposamena:

Parlamentuak zera eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: ondoren zehazten diren neurriak burutu ahal izateko beharrezko diren premiazko aldaketa tributarioak egin ditzala:

Lehenengoa: Pertsona fisikoen Errentaren gaineko zergari dagokionez, ondorengo alderdi hauek hartuko dira kontutan:

1.- Enpresa-jarduerari dagokienez.

Desglosatuko dira, lokal finkoetan burutzen direnak (komertzialak, zerbitzu pertsonalak: ilea-paindegiak... ) eta gainontzekoak bereiziz.

Lehenengoan kasuan erosketa edota fakturazio propioaren kopurua hamar milioitik gorakoa baldin bada, errendimendua beti ere zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztuko da. Errendimendu garbia inola ere ezingo da izan aurreko urteko lan-errentagatik aitortutako garbiaren (zerga-oinarria) batezbestekoa baino baxuagoa.

Bigarren kasuan, errendimendu garbia aurreko urteko lan-errentagatik aitortutako batezbestekoa izango da.

Enpresa-jarduera hasi berrien kasuan, ezarritako errendimendu garbiari neurri gutxigarriak aplikatu ahal izango zaizkio.

2.- Jarduera Profesionalaren zehaztapenari dagokionez.

Zuzeneko zenbatespenaren bidez egingo da. Zenbatespen objektiboa egiteko sistema osagarria osatuko da alor ekonomiko ezberdinetan jarduera-mota horietan aritzen diren profesionalen batezbesteko soldatak kontutan harturik. Aitortu beharreko errendimendu garbia, zuzeneko zenbatespenaren bidez ateratakoa izango da, baina inola ere ezin izango da izan zenbatespen objektiboaren bidez lortuko litzatekeenaren % 75 baino txikiagoa.

Lanbidean bost urte baino gutxiagotan aritu diren profesionali zuzeneko zenbatespen metodoa aplikatuko zaie, eta koefiziente gutxiagarriak aplikatuko zaizkie.

3.- Zerga-oinarri (Z.O.) globalaren zehaztapenari dagokionez.

ZO globala zehazteko ezin izango dira konpentsatu zerga-oinarri positibo eta negatiboak, ez bada berauek errendimendu-iturri beretik eratorri direlako. Salbuespena izango dira higiezinaren kapitalaren errendimenduak, hauek bestelako errenta-iturriekin konpentsatu ahal izango baitira.

Ekitaldi batean konpentsatuko ez diren zerga-oinarri negatiboak hurrengo bost urteetan konpentsatu ahal izango dira iturburu bereko errendimendu positiboekin.

4.- Ondareen gora beheren zehaztapena eta dagokien zergari dagokionez. Ondarearen hazkunde edo murrizketatzat, finantza-izaerarik ez duten ondare higiezin eta higikorrek saltzerakoan azaldutako ondareen bariazioak hartuko dira kontutan soilik.

Finantza-tituloak izatetik etorritako edozein errendimendu (hala nola, finantza akzioak, obligazioak,

erakunde publiko edo pribatuek jaulkitako tituluak, dibisak, baloreen kartera, moneta gordailuen agiriak, eta abar) kapitalaren errentatzat joko da. Zenbat urtetan sortu den kontuan hartuz errenta erregular edota irregulartzat hartuko da eta dagokion zerga tarifara egokitu beharko da. Ondare-aldaketak, beraz, arestian aipatutakoak baino ez dira. Zergaoinarriaren zehaztapenean beste zerga bat gehiago bailiran ordaindu beharko dira. Zerga-oinarri erregularra bada dagokion tarifa arrunta aplikatuko zaio eta irregularra bada erregularrari ezarritako tarifatik ateratako batezbesteko karga.

Bigarren: Sozietateen gaineko zergari dagokionez. Ondorengo alderdi hauek hartuko dira kontutan:

1.- Kargaren tasa eraginkorrari dagokionez.

Sozietateen gaineko Zerga dela-eta sartu behar den kuota likidua honako bi kopuruetatik handiena izango da:

– Kuota osoari legalki aplikatu ahal zaizkion kenkari guztiak aplikatuz zehazten dena.

– Zerga-oinarriaren % 18.

2.- Sozietateen gaineko Zergarako Pertsona Juridikoen kontzeptuaren mugaketari dagokionez.

Ondareen jabeorako diren sozietateen errenta, bestelako helburu instrumentalen bat dutenena, sozietateak tartearriena, errenta horiek bazkideei egotzi beharko litzaizkieke edota, gardentasun fiskal osoz, euren errendimenduak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan sartu.

Iruñean, 1998ko apirilaren 21ean

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko Plan bat igor dezan

### «EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko Plan bat igor dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena oneste, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### MOZIOAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Barne Batzordean eztabaidatzeko.

Langabezi tasa gure komunitatean, zenbait gora-beherarekin, % 10 eta % 14a artean dago. Horrek esan nahi du 20.000 eta 24.000 arteko pertsona kopuruari buruz ari garela; horietarik % 50 baino gehixeagok kobratzen dute prestazio edo sorospenen bat, 1994an berriz, % 59k kobratzen zuen.

Lanaren behin-behinekoatasuna da langabezi egoera kezkarriarekin batera doan beste arazo-etako bat. 1996an, Nafarroan, 48.000 langilek

zuten behin-behineko kontratua; horietarik, kontratuen % 55k sei hilabete baino iraupen txikiagokoa zuten, eta % 37 iraupen zehaztugabea.

1998rako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 8.074 milioi aurreikusi dituzte behin-behineko langileentzako; horietarik 4.000 milioi Hezkuntza eta Kultura Departamenturako dira eta 3.500 Osasun Departamenturako.

Langile baten batezbesteko kostua 3,5 milioi dela kalkulatzeko badugu, behin-behineko langileentzako aurreikusitako 8.074 milioi horiekin 2.300 lanpostu finko baino gehiago sor daitezke.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

3. Hiru hilabeteko epean, Gobernuak Parlamentuari igorriko dio behin-behineko edo aldi baterako kontratuak oposizio lehiaketa publikoaren bidez kontratu iraunkor bihurtzeko plan bat.

2. Planak departamentuka ezarriko du enplegu eskaintza publikoa eta behin-behineko edo aldi baterako kontratuak 1998, 1999 eta 2000 urteetan enplegu finko edo iraunkor bihurtzeko burutu beharreko jarduketan egutegia finkatuko du.

3. Plana era koordinatuan gauzatuko da, sindikatuek uneoro zainduta.

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan**

### **«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lehendakari-tza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lehendakari-tza eta Barne Batzordeak ezatabaida eta bozka dezan.

Oraingo abagunean, langabezia, pobrezia, lanpostuetako segurtasun eza eta zabor kontratuak eguneroko kontua diren garai batean, ezin dugu ahaztu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek lanpostu seguru eta finkoa dutela. Lanpostu horien baldintzak hobetzen ahal direla eta ahal den neurrian hobetu behar direla gogora-

tu behar bada ere, ezin ditugu onartu ez pribilegioak, ez beste langileekiko edo lanik gabeko jendeekiko elkartasun eza ere.

Sindikatueta iturrien arabera, 1996an 8 milioi aparteko ordu egin omen ziren Nafarroan. Ordu horiekin 5.000 lanpostu berri sortuko ziren.

1998ko ekitaldirako, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 147 milioi pezeta aurreikusi dira departamentuetako aparteko orduak ordaintzeko. Orduko kostuari buruzko kalkulu erraza eginda, 45.000 ordu egitea aurreikusi da.

Erakunde publikoek, enplegua sortzeko guztion helburuarekin bat eginda, ahaleginak egin behar dituzte, dagokien esparruan behinik behin, Nafarroako sozietatean sortu denaren antzeko bikoiztasun soziala ez gertatzeko.

Aurreko guztia dela eta, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren arauak eman ditzan egun honetatik aurrera ez dadin aparteko ordurik egin ez Nafarroako Foru Administrazioan, ez haren menpeko erakunde publikoetan ere.

2. Nafarroako Gobernuak, departamentuka, enplegu eskaintza publiko bat prestatuko du, aparteko orduetarako aurreikusi diren 147 milioi pezetako kopurua kontratu iraunkorretarako erabil dadin, behar diren oposizio-lehiaketak eginda.

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu**

### *HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTERTUA*

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 1998ko apirilaren 1ean egindako bilkuran, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak auzkertutako ondoko mozioa baztertu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri hartzen ditu".

Mozio hori 1998ko martxoaren 17ko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Mozioa. Horren bidez, Senatuaren eraberritzea aztertzen ari den Ponenziari adierazten zaio zein den Nafarroako Parlamentuaren irizpidea aldaketa honen aurrean**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1998ko apirilaren 22an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokratik Elkar-gunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako ondoko mozioa baztertu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Senatuaren eraberritzea aztertzen ari den Ponenziari adierazten zaio zein den Nafarroako Parlamentuaren irizpidea aldaketa honen aurrean".

Mozio hori 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzeari buruz neurriak har ditzan**

### *LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK BAZTERTUA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 1998ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak auzkertutako ondoko mozioa baztertu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala

erabiltzeari buruz neurriak har ditzan". Mozio hori 1998ko apirilaren 14ko 25 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía



## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan**

### *NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSIA*

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1998ko apirilaren 24an eginiko bilkuran ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ENHE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren fondoak presta ditzan gehienez ere hilabeteko epean ENHERi 1997 urteko dirulaguntza ordaintzeko. Dirulaguntza horren zenbatekoa ENHEk REASSen eta RETAn alta emanda dituen afiliatuen -betiere haien intimitatea gordez- eta 1997 urtean nekazaritzako profesionalen beste elkarteari emaniko dirulaguntzaren likidazioan erabilitako proportzioen arabera izanen da, izan ere afiliatu bakoitzeko dirulaguntza berdina jaso dezaten bi kasuetan.

---

## **Laneko Segurtasun eta Osasunaren egunari buruzko Adierazpena**

### *BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA*

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko apirilaren 28an eginiko bilkuran, ondoko Adierazpena onetsi zuen:

1. Apirilaren 28a Laneko Segurtasun eta Osasunaren eguntzat jotzea.

2. ESANKEk onetsitako nazioarteko deklarazioak bere egitea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an.

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Trafikoari buruzko eskumenak berreskuratzeari buruzko galdera***PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak trafikoari buruzko eskumenak berreskuratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Pedro Romeo Lizarragak, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ondoko premisak kontutan hartuta:

1.- Estatu espainiarrak ez zituen inoiz jaso trafiko eskumenak, eta Nafarroak ere ez ditu inoiz eman.

2.- Estatu espainiarrak ez zuen inoiz jaso eskumen horien eskualdaketa, eta Nafarroak ez zituen horiek inoiz eskualdatu.

3.- Estatu espainiarrak eskumenak hartu egin zituen, eta usurpatu.

4.- Beraz, logikoa da Estatu espainiarrak egin-tza hori aitortzea eta Nafarroak trafiko eskumenak berriz ere hartzea; horretarako inongo eskualdatze dekreturik ez da behar, baizik eta Nafarroa eta Estatu espainiarraren arteko hitzarmena, aitorten hori jasotzen duena, eta Parlamentuak (nafarren borondatearen ordezkatzan duenak) onetsitakoa.

1.- Horrela planteatzen al du Nafarroako Gobernuak trafiko eskumenen berreskurapena?

2.- Zertan oinarritzen da, bestela, eskualdatze nahia, Foruaren Hobetzeak ezarritakoa ere ez baitago kontraesanean Nafarroaren trafiko eskumena jatorrizkoa izatearekin?

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

---

## Zikloturismorako bide handietako Europako sare bat sortzeko Eurovelo proiektuak Nafarroatik izango duen ibilbideari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak zikloturismorako bide handietako Europako sare bat sortzeko Eurovelo proiektuak Nafarroatik izango duen ibilbideari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Europako Txirrindularien Elkartek (ETE), Europako hainbat herritako erakundeen laguntzarekin, Eurovelo Proiektua diseinatu zuen 1996an, hau da, Zikloturismoko Ibilbide Handien Europako Sarea. Aipatu proiektuaren helburua zen Europa osoa zeharkatuko duten luzera handiko zikloturismorako 12 ibilbide sortzea.

Europako Batzordeko Ingurugiro, Segurtasun Nuklear eta Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusiak, aurreko azterlana ikusita, Europako Txirrindularien Elkarteari eta interesdun gainerako entitateei Eurovelo Proiekturako proposamen zehatzak egiteko enkargua eman zien: Lehenbiziko ibilbidea 2.000 urtean zabaldu ahal izateko ibilbideak prestatu eta lan egutegia burutzea.

Espainian zehar hasiera batean proposatu zen ibilbideak garrantzi historiko eta kultural handia duten oinarriko bi ardatz biltzen zituen: Santiago Bidea eta Zilarraren Ibilbidea. Bi horien bitartez 1.500 kilometro baino gehiagoko ingurugiro-korridore bat eratuko lukete. Kilometro horietatik 745 Santiago Bidekoak izanen lirateke.

Hasiera batean Itsasalde Atlantiarreko ibilbidea izenarekin ezagutu zen ibilbide hura. Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Andaluzia biltzen zituen eta aurreikusitako 12 ibilbideetako lehenbizikoa zen.

Ingurugiro Ministerioa eta ibilbideak zeharka-

tzen dituen autonomi erkidegoak hitzarmen baten bidez ari ziren lanean ibilbide hori diseinatzen. Joan den azaroan Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak hitzarmen bat sinatu zuen Espainiako Trenbideen Fundazioarekin Espainiako ibilbideak Nafarroan zeharkatuko dituen aldeak zehazki identifikatzeko.

Ibilbidearen trazadura horiek jada dauden azpiegiturak aprobetxatzen dituzte, edozein afizionaturerentzat bide erabilgarriak izan daitezten. Horrela bada, kasuen arabera, abelbideak, erabiltzen ez diren trenbideak, landa bideak, utzitako errepideak edo beste edozein komunikabide erabiltzea gomenatzen da, ibilgailu motoredunek gutxi erabilitakoa.

Planteamendu hori oso onuragarria da ingurugiroa babesteko eta bidea ematen du tokian tokiko enplegua sustatzeko ere maila txikian; Europako kohesioa sustatzeko eta landa jendeguneak laguntzeko ere balio dezake, izan ere Europako Txirrindularien Federazioak berak mugatutako ibilbide mota hauek jarduera ekonomiko handia sortu dutelako eta epe laburrean inbertsioak amortizatzen adina diru sortu dutelako.

Hori guztia dela eta, ikusirik gure komunitaterako halako ibilbide batek eman dezakeena, Eurovelo Proiektuak, hau da, Zikloturismoko Ibilbide Handien Europako Sareak, Nafarroan zehar izan dezakeen ibilbideari buruz, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Noizko aurreikusi da Eurovelo zikloturismo sarea Nafarroan zehar iragateko egiten ari diren identifikazio lanak bukatzea? Zein tarte daude erabat identifikatuta? Zein da horietako bakoitzaren ibilbide kilometrikoa? Mapak egiten eta seinaleak jartzen ari al dira?

3. Izaten ari al da Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua kontaturik Eurovelo zikloturismo sareak zeharkatzen dituen udal eta toki entitateekin? Zein udal edo toki entitate dira horiek?

4. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Eurovelo sareaz gainera, txirrindula Nafarroako zenbait aldetan -horretarako egokiak izan daitezkeenetan- turismorako erabiltzea sustatzeko ideia? Baiezkoan: zein aldetan? zein fasetan daude hori abian jartzeko lanak? Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak hori abiaraztea?

Iruñean, 1998ko apirilaren 21ean

Foru Parlamentaria: José J. Sánchez Turrillas

## **Soro landuak uzteko politiken garapenari eta egungo egoerari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak soro landuak uzteko politiken garapenari eta egungo egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierda alderdiko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Europako Erkidegoak landa-lurrak uzteko sustaturiko politikaren inguruan 1994 urtean eskatu

nituen datuak ikusita, jakin nahi nuke zein izan den orduz geroko bilakaera eta zein den gaurko egoera, Nafarroan gertatutakoari buruzko ikuspegi bat izateko behar den denbora iragan ondoren.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Nafarroako zenbat hektarea bildu dira landa-lurrak uzteko Europako Erkidegoko programetara, 1995etik hona (zehazki, 1995eko urtarilaren batetik).

2. Nola banakatu daitezke hektarea horiek udalerrien arabera nahiz lehorreko lurrak edo ureztalurrak diren aintzat hartuta?

3. Zenbat hektarea daude 1998ko martxoaren 31n landa-lurrak uzteko Europako Erkidegoko programetara bilduak, udalerrien arabera eta utzitako landaketa aintzat hartuta?

Iruñean, 1998ko apirilaren 23an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## Abiadura Handiko Trena Nafarroatik iragateari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Abiadura Handiko Trena Nafarroatik iragateari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal, Askotariko Parlamentari Taldeko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Berriki Renfeko zuzendari lagunak deklaratu du enpresa horrek Nafarroako zerbitzua hobetzeko zenbait irtenbide aztertzen ari dela, baina horien artean ez dagoela Abiadura Handiko Trena

(AHT) gure Komunitatetik iragatea. Adierazpen horiek ez datoz bat Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak esandakoekin, izan ere azken horrek baieztatu baitzuen AHTaren Nafarroako iraganbidea bermatuta zegoela, Gobernuak urte honen hasieran azterketa sozioekonomikoa egitekotan zegoela eta Departamentuko zenbait teknikari propio AHTarekin zerikusia duten gaietara emanak zirela.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zer nolako informazioa du Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioak AHTa Nafarroatik iragateari buruz?

2. Zein azterlan egin ditu gaur arte Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak gai honi buruz?

3. Zein lan egin dituzte orain arte AHTarekin zerikusirik daukaten gaietan ari diren Departamentuko teknikariek?

Iruñean, 1998ko apirilaren 24an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Ardi-aziendari bizkarroiak kentzeko metodoei buruzko galdera

### INMACULADA MATÍAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak ardi-aziendari bizkarroiak kentzeko metodoei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulo andreak, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin

dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaiten.

Ardi-aziendari bizkarroiak kentzeko Nafarroako Foru Komunitatean erabiltzen ari diren metodoak gai toxikoez osatuta daude, beste alde txar batzuk izateaz gainera. Gainera, sortzen dituzten hondakinei buruzko kontrolik ez dago.

Hala ere, Urbasa eta Aralar mendietan ardiak dutxatzeko metodoa erabiltzen ari da. Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Zein aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak dutxen metodoari buruz, izan ere ingurugirorako hobeak diren bideak proposatzeko?

2. Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate osoan zehar ardiak dutxatzeko metodoa zabaldu behar al du?

3. Andiako eta beste alderdi batzuetako ardientzako bazkalekuetako bizkarroiak kentzeko fosei dagokienez, itxiko al ditu Nafarroako Gobernuak, dutxen sistemaren ordeiz beste bat jartzen den unean? noiz egingen du hori?

4. Ba al dago ikerlanik bizkarroiak kentzeko sistema horiek dituzten abantaila handiei

buruz? ba al du Nafarroako Gobernuak aurreikuspenen bat horren inguruan jarduketaren bat burutzeko?

Iruñean, 1998ko apirilaren 23an

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

---

**H Sails:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1998-2008)

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 28an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko apirilaren 20an hartutako erabakiaren bidez, hauxe bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan: Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1998-2008).

Horiek horrela, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoa (1998-2008) tramitera onartzea.

**2.** Hari buruzko iritzia Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak emango duela xedatzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Planaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefona* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--